

Igerilarien gorputzak



ARITZ GALARRAGA

Informatiboek esan dute, ikustea merezi duen informatiboa bakarrak, behintzat –Iparraldearen orenaz ari naiz, noski, ironia izpirik gabe–: euskaldun bat izan da aurten gure ordezkari Mister France lehiaketan. Euskaldun, ezen ez soilik euskal herritar, gainera Miarritzeko. Eta kirol entrenatzaile. Coach, zehatzago. Masa muskular gehiegi lehiaketarako, nahita galdu behar izan zuen –badakizue, ohikoan egiten ditugun gauza horiek–. Halere, fisikoa ezinbestekoa dela ukatu gabe, burua aldarrikatu du: “Nik badut mezu bat emateko jendeari, kirola egin dezatela egunero, ongi izateko”. Tira, izan zitekeen “irakur dezatela Pierre Bourdieu egunero, ongi izateko”, baina ez dago gaizki. Domaia da, hartara, titulua Okzitaniako lehiakideak irabazi izana.

Gera gaitezen, ordea, gure misterraren mezuarekin. Kirola egin behar dugu, gainera egunero. Betidanik egon naiz kirolaren kontra, oso, ezinikusiraino. Horrexegatik ez dut sekula praktikatu. Ea, sekula, gazte garaian bai, nola ez, baina egiaz kirola egiten ari nintzenaren kontzientziarik gabe. Gero egia da urteekin herdoil moduko bat hasten zarela nabaritzen, min bat han, min bat hemen. Eta mugimendu minimo bat eskatzen dizula gorputzak berak, exijitzen. Horregatik hasi naiz praktikatzen niretzat kirol egokiena izan daitekeena: igeriketa. Eta ez hainbeste denik eta kirolik konpletoena omen delako. Igeriketa aukeratu dut, batez ere, igerilarien gorputzengatik. Halako gauza perfekturik. Ez gaizki ulertu, mesedez. Ez bilatu patologiari: edertasunaren gorazarrea da, ez besterik. Eta kapital erotikoaren aitortza, kapital ekonomiko, sozial eta kulturalaren aldean, segur aski eliteek erabat monopolizatu ezin duten bakarra delako. Dirurik, ikasketarik, kontakturik ezean, kapital erotiko garrantzitsu baten jabe izan gaitzkeelako. Biologia alde, baina akaso kirol pixka batek lagunduta ere. ●



“ESPAINIAKO GOBERNUAK IRAGARRITAKO IGOERA OSO URRUN DAGO GURE ESKAERETATIK”

JON FANO, PENSIO DUINEN ALDEKO MUGIMENDUKO KIDEA

“Espainiako Gobernu berriak iragarri duen %0,9ko igoera oso urrun dago gure eskaeretatik”. Gobernu akordioan jaso ere ez da egiten pentsionisten mugimenduk duin bizitzeko eskatzen duen 1.080 euroko gutxienekoa, salatu du. “Gobernuari eskatzen diogu egin dituen promesak betetzeko, baina baita ere kontziente izan dadila horrela ez dituela konpontzen pentsionisten eskaerak. Borrokan jarraituko dugu eta urtarilaren 30ean greba egingo dugu. Ez gara zozo-zozo zain egongo”. **PUBLICO (2020/01/15)**

